

ATZERRITARTASUN LEGEAREN ETA BERORREN ALDARAZPENAREN AURKA

Berriro ere, Gobernuak Atzerriartasun Legea aldarazi du, eta berriro ere, berorren aurka egiten dugu, etorkinen egoera txartzea baino ez duelako egiten. PP agintean dagoenetik, hirugarren aldarazpena denez, argi dago emigrazio politika porrota izan dela, hots, norabide zuzenik gabeko politika. Izan ere, emigrazioa arazotzat jo dute, alegia, etorkinak kontrolatu beharreko arazo arriskutsua dira, beraz, errepresio eta polizi neurriak baino ez dira xedatzen.

Hori dela eta, ez gaude aldarazpen honen kontra bakarrik, Atzerriartasun Legearen beraren kontra baizik, funtsezko eskubideak errespetatzen ez dituelako, bidezkoa ez delako, gizakien kontrakoa delako eta gure herrian emigrazioaren beharriari ez dielako aurre egiten.

Azken aldarazpen honek etorkinen bizimodua hobetzeko neurriak (osasuna, hezkuntza, etxebizitza edo jendarte zerbitzuak) eman beharrean, euren egoera gaiztotzen du nabarmenki...

... gure herrialdean modu irregularrean dauden ehunka eta milaka pertsonen dokumentazioa lortzeko bidea ixten zaielako, hau da, pertsonen esplotaziorako eta bazterkeriarako bidea zabaltzen delako.

... famili batzea gehiago zailtzen delako, hau da, etorkinei famili bizia izateko eskubidea ukatzen zaielako.

... lana atzerriarrentzako bulegoetatik jatorrietako kontsulatuera bideratzen delako, eta kontsulatuok ez dute baliabiderik, eta lanez gainezka dabilta.

... garraiolariari egozten zaielako dokumentazioa kontrolatzeko ardua, hau da, bermeak gutxitzen direlako.

... etorkinak Administrazio Prozeduraren Legetik at geratzen direlako, beraz, administratu kategoria bi ezartzen direlako.

... poliziak udal errolda ikuska dezakeelako, hau da, errolda paperik gabeko etorkinen errepresio eta jazarpen tresna bihurtzen delako; horren ondorioz, etorkin asko ez dira erroldan inskribatuko eta ezingo dituzte osasun, hezkuntza eta jendarte zerbitzuak erabili.

Hori guztia dela eta, Atzerriartasun Legea indargabetzeko eta arautegi berria lantzeko eskatzen dugu; izatez, arautegi horretan, immigrazioa fenomeno natural eta positibotzat jo behar da eta bermatu behar da jendarte honetan bizi garen guztiok eskubide, betebeharrak eta aukera berberak izatea, gure jaioterria edozein delarik ere.

EZ ATZERRITARTASUN LEGEARI - PAPERAK DENONTZAT